

PRENTSA OHARRA, EUSKO TRENBIDEAK-FERROCARRILES VASCOS, SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den urtarrilaren 25ean Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SAREN kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari buruzkoa.

2016ko ekitaldiaren urteko kontuei dagokienez, HKEEK aldeko iritzia plazaratu du, nahiz egin beharreko kontularitzako birsailkapenak atzeman diren, Ondare Garbiaren diru-kopurua aldatzen ez dutenak.

Gainera, ondorioztatu du Sozietateak 2016ko ekitaldian zuzentasunez bete duela bertako jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege arautegia; salbuespen da erretiro aurreratuagatiko kalte-ordainen ordainketa, 2016rako EA Eren Aurrekontu Legeak etenda dituenak.

Bestetik, HKEEK ezin egiaztatu izan ditu 3 lanpostu betetzeko bideratutako hautaketa prozesuak, langileak hautatzeko enpresa baten bitartez gauzatu zirenak.